

PRENTSA OHARRA

BILBOKO UDAL MUSIKA ESKOLAK AURTENGO FORMAZIO TAILERREN BARRUAN ALEXANDER ERLAXAZIO TEKNIKA IKASTAROA ESKAINTZEN DU

- Alexander Teknikak egunerokotasunean hartzen ditugun jarrera okerrak ezagutu eta osasuntsuagoekin zuzentzen laguntzen du eta musikarien kasuan gainera, musika tresnen erabilera errazten du
- Ikastaro hau apirilaren 30etik maiatzaren 21era izango da eta hogeita hamar minutuko saioak emango dira partehartzaile bakoitzarekin, musika tresnarekin joaterik izango da eta honela, irakaslearekin banaka lan egiteko aukera eskaintzen da
- Alexander Teknika irakaslea Luis Fernandez izango da, arlo honetan beste zenbait musika zentroetan ere eman dituelarik tailer eta ikastaroak

Bilbon, 2010eko apirilak 26.- Bilboko Udal Musika Eskolak, BilbaoMusikaren baitan dagoena eta Udalaren Kultura eta Hezkuntza Sailaren menpe dagoen erakunde autonomoak, **Formazio Tailerren barruan Alexander Teknika ikastaroa eskaintzen du.** Erlaxazio teknika honek, **tentsioak eta jarrera desegokiak zuzentzen** laguntzen du. Tailer hau, Eskolak eskaintzen dituen gainontzeko formazio ikastaroen osagarria da eta **apirilaren 30ean, 7 eta 14an eta maiatzaren 21ean (ostiraletan) izango dira** goizeko ordutegian (10:00etatik 11:30etara talde ikastaroa eta 30'ko iraupenarekin bakarkako ikastaroa). Matrikula 70 eurotakoa izango da.

Alexander Teknika, Frederik Matthias Alexander antzezle australiarrak pasa den mende hasieran sortutako erlaxazio metodo natural bat da eta musikarien kasuan, musika tresnarekin dituzten jarrera desegokiak ezagutu eta berauek zuzentzeko balio du. Era honetan, euren musika tresnak hobeto menperatzen laguntzen du. Arnasketa eta erlaxazioa ere landuko den ikastaro hau, BilbaiMusikako egoitzan emango da eta saio bakoitzean, ordu eta erdiko talde ikastaroa eta hogeita hamar minutuko bakarkako ikastaroa landuko da. Azken honetan, ikasle bakoitzak bere musika tresna eraman ahal izango du nahi izan ezker.

Sarbide ikastaro bat denez, ikasleek ez dute beharko arlo honetan ezagutzarik. Ikastaroa emateko ardura **Luis Fernández** biolontxelo irakaslea izango da, Londreseko **Constructive Teaching Centre** zentroko graduatua da eta beste zenbait musika zentroetan ere metodo hau irakasten ibilia da, Musikenen adibidez.

Ikastaroaren matrikula epea aurreikusitako plaza kopurua bete arte zabalik egongo da eta beste eskoletako ikasle zein irakasleentzat zuzendurik dago. Ikastaroak, **BilbaoMusikako egoitzan** emango dira, Bilboko Sorkunde kaleko 8. zenbakian.

Informazio gehiago

PRENTSA BULEGOA: L&V COMUNICACIÓN – Itziar Villamandos

Kale nagusia, 81-3. solairua, 9. Saila. – 48011 BILBO

Tel.: 94 416 08 00 – Faxa: 94 439 30 56

Eskukoa: 657 796 583

villamandos@lvcomunicacion.com